

HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN BARNE ERREGIMENEKO ARUDIA

RCNH-01

BERRIKUSKETA: 1

EDIZIOA: 1

DATA: 2011ko martxoa

Página 1 de 8

1. XEDEA

Hondarribiko Itsaskari Baitako (aurrerantzean, HIB) bazkide direnen eskubideak eta betebeharrak deskribatu, jardueretan izan beharreko jarrerari eta egoitza sozialean eskuragarri dauden baliabideen erabilerari buruzkoak.

2. APLIKAZIO EREMUA

Dokumentu honek egoitza sozialak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzen dituzten HIBko bazkide guztiei eragiten die, Bela eta Arrantzako Atalak eskaintzen dituen berariazko zerbitzuak erabili ala ez.

Batzar Nagusiarena da dokumentu hau onartzeko ardura.

3. AKORDIO OROKORRAK

1.go AKORDIOA.- Egoitza soziala itxia den klub baten printzipioei jarraiki administratu, erabili eta kudeatuko da; hau da, elkartearen ostalaritzako eta aisialdiko zerbitzuak ezin dira publiko orokorrari zuzendu.

2. AKORDIOA.- Egoitza sozialera sartu ahal izango dute:

“Ohorezko Bazkideek”

“Bazkide Osoek”

“Familia bidezko Bazkideek” (ezkonlaguna edo izatezko bikotekidea)

Eta bazkidearekin batera datozen gonbidatuak. Bazkidearena da bere gonbidatuen ekintza eta ez-egiteen ardura. Gonbidatuek ezin dute bakarrik egon, bazkideak bertan egon behar du beti”.


3. AKORDIOA.- Egoitza soziala erabili ahal izateko bazkide kuotak ordaindu behar direla gogorarazi nahi dugu eta baita, kontsumitutakoaren auto-ordainketa egiterakoan ordaindu gabe utzi direnak ere.

4. AKORDIOA.- Bazkidetutako guztiak behartuta gaude Itsaskari Baitaren helburuak partekatuz eta horiek lortzeko lanetan laguntzera, Klubaren Estatutuetan jasotzen den bezala.

Horrela, Zuzendaritza Batzordeak hala eskatzen duenean, ur-kiroletako ekimenak eta jarduerak antolatuzko lanetan parte hartu beharko dugu.

5. AKORDIOA.- Guztion ardura da HIBren jabetzakoa den materiala baldintza egokietan gordetzen dela eta ekipamenduak eta instalazioak behar bezala erabiltzen direla bermatzea.

6. AKORDIOA.- Klubeko egoitzan, ezta Xaian ere ezin da erre.



**HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN
BARNE ERREGIMENEKO ARUDIA**

RCNH-01

BERRIKUSKETA: 1

EDIZIOA: 1

DATA: 2011ko martxoa

Página 2 de 8

7. AKORDIOA. - Egoitza sozialera adin txikikoekin sartzen direnek arreta berezia jarri beharko dute haurrengan, elkartean daudenak gogaitu ez ditzaten eta bertako ondarea eta higiezinak errespetatu ditzaten.

8. AKORDIOA.- Ohorezko bazkideek eta Bazkide Osoek txartel elektronikoa bakarrik izango dute egoitza sozialera sartzeko.

Txartel hori ezin da besterendu eta , bazkideaz gain, haren ezkonlagunak edo izatezko bikoteak soilik erabili dezake.

9. AKORDIOA.- Egoitzako zerbitzuak (taberna, kafe-makina, sukaldea, ardandegia, jangela, telebista, etab.) baimendutako bazkideak erabili ahal izango ditu.

Era berean, nahi duen bazkideak eskubidea dauka sukaldari bat kontratatzeko, betiere haren jarreraren eta laneko arriskuaren ardura bere gain hartzen bada.

Adin txikikoek ezin dituzte aipatutako zerbitzuak erabili, ezta laguntzaile bezala ere.

10. AKORDIOA.- Bazkide guztion ardura da kontsumitutakoaren "auto-ordainketa" egitea: sukaldeko zerbitzuen erabilera, jangela, etab.

11. AKORDIOA.- Egoitzean, kamara zirkuito itxi bat dago, dagokion baimenarekin. Faltak, lapurketak eta neurrigabekeriak kontrolatzeko erabili ahal izango da.

12. AKORDIOA.- Ardandegi-zainak egunero aldatzeko dituzten kontsumitutako artikuluak eta zenbatutakoak. Desfasaren bat badago (positiboa edo negatiboa) aurreko eguneko ordainketa-ordainak gainbegiratu ahal izango ditu eta bazkideei galdetuko die akatsen bat egin duten ala zer edo zer oharrean sartzea ahaztu zaien.

Desfasea egiaztatzen bada, desfasea eragin duen bazkideak hitzartutako aldea ordaindu/jasoko du Klubaren bulegoan.

Jakinarazpena egin den egunetik 1-3 hilabete pasa badira eta bazkideak oraindik ez badu ordainketa/kobrantsa egin, Klubak desfase hori itxi egingo du eta hiru hilean behingo kuotarekin batera izapidetuko du bazkidearen kontu korrontearen bidez.

13. AKORDIOA.- Jangelako zerbitzuak erabiltzeko nahitaezkoa da mahaia(k) erreserbatzea "ELKAR GEST" programaren bitartez, elkartean bertan edo Klubeko web orrialdetik.

Erreserbak mahaikide kopuruaren arabera egingo dira:


Horrela, bi mahaikideko, mahai txiki bat erreserbatu daiteke.

Mahai handi bat erreserbatzeko eskubidea izateko, sei mahaikide etorri behar dira gutxienez. Eta beste mahai bat erreserbatu daiteke, bai txikia edo handia, hamar mahaikidetik aurrera.

Ezin dira mahaiak laukian jarri, eserleku asko galtzen baitira.

Ezin da erreserbarik egin 60 egun baino lehenago, baina gertakizun berezi bat izan ezker, jaunartzeak eta antzekoak, elkarteko Batzordeak 60 egun baino lehen egindako erreserbak onartu ditzake.

Egunean bertan ere instalakuntzak erabili behar baditugu, erreserba egingo da.

	HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN BARNE ERREGIMENEKO ARUDIA			
RCNH-01	BERRIKUSKETA: 1	EDIZIOA: 1	DATA: 2011ko martxo	Página 3 de 8

30 mahaikide baino gehiagoko erreserbak egiteko, Batzarrari baimena eskatuko zaio nahitaez eta 15 egun lehenago.

14. AKORDIOA.- Ezeztatzeak gutxienez 24 ordu lehenago egin behar dira. Egindako erreserbara joaten ez den bazkideak edota behar adina denborarekin ezeztatu ez duenak isuna jaso dezake (12 euro mahai txikiko eta 30 euro mahai handi bakoitzeko), betiere ez badago erreserba ezeztatzeko justifikatutako arrazoirik.

Elkarteko Batzarrak, bazkideek eta beren lagunek eragindako portaera zakarrak zigortzeko ahalmena badu.

4. URTEBETZETAKO FESTAK ANTOLATZEKO JARRAIBIDEAK

Haurren urtebetetze festak ospatzeko ere Erreserba Programan izena eman behar da, behar bezala bete eta dagokion “Ordainketa-orria” bete. Bestetik, kanpotik ekarritako botilei kortxoak kentzeagatik ordaindu beharreko kuota ordaindu behar da eta baita haur/mahaikide bakoitzeko dagokiona ere, “Urtebetetzea” atalean, haur bakoitzeko. Kontuan izan, nahiz eta sukaldea ez erabili, maha zapiak eta mantelak, komunak, aire girotua eta berogailua... erabiltzen direla. Haurrak mahai eta sofa gainean ibiltzen ez direla kontrolatuko da. Ezin dira bizikletak, patinak, pilotak...sartu, behar ez diren harriskuak ekiditzeko.

Haurrak ezin dira ez sukaldean en barran sartu.

Bazkideak eta bere lagunek sortutako ekintzen ardura, bazkidearena izango da.

Urtebetetze festak egiteko ordutegia: 16:30-19:30

Urtebetetze festak egiteko egunak: Astelehenetik ostiralera. (lan egunak)

5. BERARIAZKO AKORDIOAK


15. AKORDIOA.- Zuzendaritza Batzordeak eskubidea dauka egoitza soziala guztiz edo partzialki erreserbatzeko, ez ohiko ekimenak antolatzeko helburuarekin, hala nola, sari banaketak, arrantza txapelketak, lehiaketak, hitzaldiak, “titulín” titulua lortzeko azterketak, etab.

Horrelako ekimenak antolatzeko lanak Gizarte Jardueretako Ataleko ordezkariak koordinatuko ditu eta iragarki-taulan argitaratuko dira denbora nahikoarekin. Era berean, xede horietarako erreserbatutako mahaiak erreserba programan jasoko dira.

16. AKORDIOA.- Itsas kirolekin lotutako ospakizunak direla eta, egoitza sozialean antolatzen diren gizarte ekintza horietan parte hartu dezakete bazkideek (adibidez, sardinak jatea, etab.).

17. AKORDIOA.- Kanpoko ataria ez dago egoitza sozialari atxikita. Ezin dira mahaiak kanpora atera “jangela zerbitzurako”.

Bata bestearen gainean jar daitezkeen plastikozko aulkiak eta mahaiak kanpora atera daitezke “Taberna” zerbitzua emateko. Horrelakoetan, nahitaezkoa da zonaldea eta mahaiak garbitzea eta azken horiek zeuden lekura bueltatzea.



**HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN
BARNE ERREGIMENEKO ARUDIA**

RCNH-01

BERRIKUSKETA: 1

EDIZIOA: 1

DATA: 2011ko martxo

Página 4 de 8

18. AKORDIOA.- Bazkide batek egoitza sozialean jardueraren bat egin nahi badu eta jarduera horiek elkartearen helburuekin loturarik ez badute edota ez badaude horien zerbitzura, eta egoitza sozialaren eguneroko erabilera nabarmen aldatzen badute, Klubeko bulegoan horiek garatzeko baimena eskatu beharko da, astebete lehenago. Erabakia Gizarte Jardueretako Ataleko ordezkariak hartu eta jakinaraziko du.

19. AKORDIOA.- “Xaia” gela 18 urtetik gorakoek soilik erabil dezakete telebista ikusteko, irakurtzeko edota jolasteko.
Haurrek ezin dute sartu.

20. AKORDIOA.- Haurrek badute telebista-gela bat.
Haurrekin helduren bat egotea saiatu behar dugu. Gela horretan ezin da pilota, patinete eta antzeko jostailurik sartu.

21. AKORDIOA.- Ahal bada, ez gara 16 urtetik beherakoekin afaltzera joango ostiral eta larunbatetan.

22. AKORDIOA.- Ezinduentzako komunean badago umetxoak garbitzeko eta aldatzeko berariazko ekipamendu bat.

23. AKORDIOA.- Ezin da etxeko animaliarik sartu, ezinduak laguntzen dituzten zakurrak salbu.

24. AKORDIOA.- Klubaren bulegoak Bela eta Arrantzako ataletako kirol helburuekin lotutako izapide administratiboak egiteko aukera eskaintzen die bazkide osoei eta familia bidezko bazkideei, urte osoan eta doan:


- Bela eta Arrantzako federazioaren lizentziak lortzeko izapideak.
- Nabigatzeko tituluak lortzeko eta berritzeko kudeaketa administratiboa.
- Ontzien ikuskaritzarako kudeaketa
- Itsasoko ur-azaleko kirol-arrantzarako lizentzia lortzeko eta berritzeko izapideak.
- Eusko Jaurlaritzaren aisialdiko ontzien Erregistroan izena ematea.
- Babestutako espezieak Arrantzatzeko Baimena lortzeko izapideak.
- Kapitaintzan egin beharreko izapideak.

6. TABERNA-SUKALDEA-JANGELA ZERBITZUAK ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

25. AKORDIOA.- Sukaldean, bazkidea eta bere laguntzailea bakarrik ibili daitezke, gehienez 2 pertsona. Sukaldean, sukaldaritzan dabilenak bakarrik egon daitezke, besteek barraren atzean egon beharko dute.

Bazkideak solik erabili dezake kafetera eta barran sartu. Barra beti garbia mantenduko da: botilik gabe, edalontzirik gabe....

Haurrak ezin dira ez barran ez sukaldean sartu.



**HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN
BARNE ERREGIMENEKO ARUDIA**

RCNH-01

BERRIKUSKETA: 1

EDIZIOA: 1

DATA: 2011ko martxoa

Página 5 de 8

26. AKORDIOA.- Izotza egoitza sozialean bertan kontsumitzeko soilik erabil daiteke. Sukaldea, labeak eta parrilla gasarekin funtzionatzen dute. Horiek piztu ahal izateko ke-erazgailua martxan jarri behar da, bestela ez dira martxan jartzen. Guztion segurtasunerako da. Frijigailuak elektrikoak dira.

27. AKORDIOA.- Gosari, hamaiketako eta meriendetan bazkidearena da erabilitako guztia garbitzeko ardura (platerak, mahai-tresnak, edalontziak, zartaginak, kazolak, etab.) Barra garbi mantendu behar dugu. Ez dugu gainean ezer utziko. Garbiketa erraztu behar dugu, tresnak dagokien lekuan utziz.

28. AKORDIOA.- Oraindik ere edaria duten botilak hozkailuan gordeko dira, dagozkien etiketarekin.

29. AKORDIOA.- Debekatuta dago arraina garbitzea, egun berean eta egoitzan bertan prestatu behar ez bada.

30. AKORDIOA.- Sukaldean, gehienez ere, erreserba bakoitzeko bi lagun sar daitezke.

31. AKORDIOA.- Ontzira eramateko zerbait prestatu badugu, ordainketa-orria bete beharko dugu sukaldeko gastua apuntatuz.

32. AKORDIOA.- Ez da janari hondarrik utziko kazoletan, egunean bertan kontsumitu behar ez ditugunetan ez ezik. Horrelakoetan, kazolak hozkailuan gordeko dira, dagozkien etiketarekin (data) eta behar bezala identifikatuta.

Hozkailuan etiketarik gabe eta identifikatu gabe uzten den janaria 24 orduzakarretara botako da.

Soberan geratzen den ogia, postreak eta bestelakoak etxera eraman beharko ditugu edota zabor organikoaren zaborrontzian bota.

33. AKORDIOA.- Aurre-sukaldean honako ekipamendu hau dago:

- Hondakinak gaika biltzeko edukiontzia:

ORGANIKOAK- BEIRA- PAPERAK/KARTOIA- PLASTIKOAK/METALA

- Ehunezko mahai-zapiak/ahozapiak botatzeko kaiolak.

- Horrez gain, gelatxo horretan sukaldeko tresnak sailkatzeko gailuak ere baditugu. Guztiak behar bezala identifikatuta daude.

- Platerak sartzeko ur eta xaboiz betetako ontziak.


- Mahai-tresnak sartzeko ontziak.

- Edalontziak eta katiluak uzteko barrak.

- Kazolak, zartaginak eta antzekoak uzteko barrak.

34. AKORDIOA.- Garbiketa behar bezala egiteko, erabili ditugun tresna guztiak dagozkien edukiontzietan sartu behar ditugu. Kazolak dagokien lekuan eta uretan sartuta.

35. AKORDIOA.- Harraskak hutsik eta garbi mantendu behar ditugu.



HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN BARNE ERREGIMENEKO ARUDIA

RCNH-01

BERRIKUSKETA: 1

EDIZIOA: 1

DATA: 2011ko martxo

Página 6 de 8

Mahaiak gehiago erabili behar ez ditugunean, gainean dagoena jaso, baieta batekin garbitu eta hasierako lekuan jarriko ditugu berriro, erantsitako planoari jarraiki.

Plantxa, horrela garbitzen da:

- Piztu eta berotu arte itxaron (200°)
- Izotzarekin eta espatularekin garbituko dugu, koipea ustubidetik atereaz.
- Plantxa garbitu arte gauza bera egingo dugu.
- Koipearen kax ustu eta garbitu egiten da.

36. AKORDIOA.- Sukaldetik irteten diren azken bazkideek sukaldea, labeak, plantxa, ke-erazgailua, txorrotak eta bestelakoak itzalita, deskonektatuta edo itxita daudela egiaztatu beharko dute.


Egoitza sozialetik irteten diren azken bazkideek argiak itzalita eta atek itxita daudela egiaztatu behar dute.

37. AKORDIOA.- Bazkide guztiok, elkartean ikusten diren arazo guztien berri Batzarrari eman behar diogu, ahalik eta azkarren konpontzeko. Komunikazio hau, "Iradokizun eta Kexa" orria bete eta bulegora bidali daiteke posta elektronikoz, edo elkartean bertan dagoen postakutxan sartuz.

38. AKORDIOA.- Bazkide bati araudiaren aurkako zerbait egiten ari dela ohartarazteko eskubidea daukagu bazkide guztiek. Ohartarazpen guztiak errespetu osoz egingo ditugu beti, nor garen adierazita bazkide bezala. Guztion artean, jangela hobetu dezakegu, eta araudia ezagutzen ez duten bazkideei, araudia ezagutzera eman. Horrela, Kluba, guztiontzatoki atsegin bat izatea lortuko dugu.

7. ERANSKINAK

- Jangelako mahaien antolaketa planoak.
- Iradokizun eta kexa orria.



HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN BARNE ERREGIMENENKO ARUDIA

RCNH-01


BERRIKUSKETA: 1


EDIZIOA: 1

DATA: 2011ko martxo

Página 7 de 8

I. ERANSKINA





HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA EGOITZA SOZIALAREN BARNE ERREGIMENENKO ARUDIA

RCNH-01

BERRIKUSKETA: 1

EDIZIOA: 1

DATA: 2011ko martxo

Página 8 de 8

II. ERANSKINA

CLUB NAUTICO HONDARRIBIA HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA

***ATENCIÓN: BEBIDAS DE FUERA, HAY QUE PAGAR EL DESCORCHE**

VINOS, SIDRAS Y ESPUMOSOS				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
CUNE PEQUEÑO		5,10		
VIÑA ALBINA RESERVA		12,50		
VINO ILGORA		3,00		
VIÑAREAL CRIANZA		8,00		
BORDÓN CRIANZA		8,00		
BERONIA CRIANZA		8,00		
COTO CRIANZA		7,00		
CRESTA ROSA		5,00		
CLARETE ZARAMENDI / LAMBRUSCO		3,20		
VINO BLANCO RUEDA		4,50		
PESCADOR		5,00		
TXAKOLI ETXANIZ		10,00		
TXAKOLI GAINZA		8,00		
SIDRA		2,30		
ANNA DE CODORNIU		11,00		
SEGURA VIUDAS SEC.		8,00		

CERVEZAS, REFRESCOS Y AGUAS				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
SAN MIGUEL y SAN MIGUEL 0,0		0,80		
KRONENBOURG 330 cl.		1,40		
MAHOU 330 cl.		1,20		
BITTER KAS		1,10		
BITTER CINZANO		1,10		
VERMOUTH		1,20		
REFRESCOS (KAS, TÓNICA, PEPSI ...)		0,90		
ZUMOS (PIÑA, MELOCOTON, RADICAL)		1,00		
MOSTO		0,90		
BÁTIDOS (CHOCOLATE, VAINILLA)		1,10		
GASEOSA 1/2 L.		0,70		
AGUA ALZOLA CON/SIN 1/2 L.		0,60		
AGUA ALZOLA 1,5 L.		1,00		

CAFES E INFUSIONES				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
CAFES E INFUSIONES		0,70		

COPAS BOTELLIN				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
BALLANTINES		1,90		
GLENFIDDICH		2,10		
CARDHU		3,80		
REMY MARTIN		4,00		
TORRES 10		1,90		
BAYLEYS		1,60		
PACHARÁN		1,60		
RON HABANA CLUB		1,70		
ANIS CADENAS		1,30		
ORUJO HIERBAS o BLANCO		1,30		
VODKA SMIRNOFF		1,80		
BEEFEATER GINEBRA		2,00		
GORDONS GINEBRA		1,40		
LICOR MELOCOTON		1,40		
COINTREAU		2,00		

LICORES BOTELLA GRANDE				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
WHISKY BALLANTINES 1L.		16,00		
GINEBRA GORDONS		14,00		
RON CACIQUE 0,7 L.		20,00		
PATXARAN		18,00		

SUMA 1				
---------------	--	--	--	--

CONSERVAS				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
ACEITUNAS		1,60		
SARDINAS		1,50		
BONITO		2,40		
ESPARRAGOS		3,50		
PIMIENTOS		3,00		
GUISANTES		0,90		
TOMATE NATURAL KG.		1,00		
TOMATE FRITO 1/2KG.		0,90		

HELADOS				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
BARRA HELADO		3,50		
BOMBON-APOLO		1,60		
CREMA CATALANA IND.		4,50		
TARRINA AL WHISKY		4,50		
LIMON HELADO		3,70		

CONGELADOS (PRECIO POR BANDEJA)				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
MEJILLON RELLENO		4,00		
CROQUETAS JAMON		3,50		
RABAS CHIPIRON		3,50		

*Al consumir congelados, debes añadir el gasto de mantel que incluye:mantel, aceite,electricidad,limpieza general etc.

VARIOS				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
ACEITE VIRGEN GRANDE		3,50		
ACEITE VIRGEN PEQUEÑO		1,00		
DESCORCHE por CADA BOTELLA VINOS Y LICORES				
CADA BOTELLA		2,00		

DESCORCHE PARA CUMPLEAÑOS (GOCIA-COLA, KAS...)				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
DESCORCHES/UNIDAD		0,50		

DESAYUNO, APERITIVO, MERIENDA POR PERSONA				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
SERVICIO PAPEL		1,00		

En este apartado están incluidos la cocina y condimentos
La limpieza tendrá que hacer el socio

COCINA,MANTELES Y VAJILLA POR PERSONA(COMIDA-GENA)				
ARTICULO	Cant.	Precio	Eu.	Centimos
MANTEL Y SERVILLETA DE TELA		2,50		
MANTEL-PAPEL SERVILLETA TELA		2,20		
MANTEL Y SERVILLETA PAPEL		2,00		

En este apartado está incluido la cocina, condimentos y la limpieza

SUMA 2				
SUMA 1				

TOTAL (SUMA 1 + 2)				
------------------------------	--	--	--	--

DATOS SOCIO	
Nº SOCIO:	Nº MESA:
NOMBRE:	
APELLIDO:	
TFNO:	
FECHA:	
PROPINA:	

REPASE LA NOTA:
¿NO SE LE OLVIDA ALGO? HELADOS,
CAFES, ACEITE, DESCORCHE.....